

ediciones
Lectio

Arizaga, Juan; Aizpurua, Olatz; Laso, Maite

Euskal Herrian ezagutu beharreko 111 hegazti arrunt

Euskal Herrian ezagutu beharreko

Ikuspuntu biogeografikotik oso interesgarria den bidegurutzean dago Euskal Herria; izan ere, kilometro karratu gutxi batzuetan eskualde atlantikoa, mediterranea eta alpetarra elkartzen dira (Euskal Mendietako eta Mendebaldeko Pirinioetako kota altuenetan), lurraldearen zati bat Kantauriko urez bustita dagoela ahaztu gabe. Hori dela eta, ornitologiaaberastasun handia dago. Kosta-lerrotik hasi eta itsasoaren mailatik 2.000 m baino gehiagora dauden gailurretaraino, tartean, mota askotako basoak, landazabalak eta pseudo-estepak zeharkatuz. Mota hauetako hegaztiak ezagutzeko, mendira joatea gomendatzen dugu, isiltasunean, goizean goiz, prismatikoekin eta espezieak identifikatzen ikasi, bai ikusmenagatik, bai kantuengatik. Gida honetan Euskal Herriko espezie adierazgarrienak biltzen dira. Oro har, hegazti arruntak eta behatzen errazak direnak aurkituko ditugu. Orri bakoitzean hamar bat espezie agertzen dira eskalan, testu labur batekin eta informazio osagarria duten ikonoekin, errazago aurkitu eta identifikatzeko. Bildumako beste titulu batzuetan beste espezie asko sakonago aztertuko dira: basokoak, mendikoak, nekazaritza eta estepakoak eta itsasokoak esaterako.



| | |
|----------------|------------------------|
| Argitaletxea | Lectio |
| Bilduma | Miniguía de campo |
| Azalak | Tapa blanda o rústica |
| Orrialdeak | 16 |
| Neurria | 200x125x3 mm. |
| Pisua | 40 |
| Hizkuntza | Euskera |
| Gaia | Divulgación científica |
| EAN | 9788418735493 |
| PVP | 6,00 € |
| PVP,BEZik gabe | 5,77 € |

